



III. ATALA

EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Ebazpena, 2024ko irailaren 12koa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezka-riarena, 2024ko uztailaren 18ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2025eko tokiko jaiegunen egutegia ezarri zen.

3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lan eta Enplegu Sailaren apirilaren 23ko 49/2024 Dekretuaren 2. artikulua (2024ko maiatzaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 89. zenbakia) eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 07/2021 Dekretuaren 14.1.f) artikulua. Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaritari dagokio bere lurralde historikoan bi egun ezartzea, udalek proposatuta, tokian tokiko jaiegun gisa, lanerako egun baliogabeak, ordainduak eta berreskuratu ezin direnak.

Horretarako, dekretu horren 2.2 artikuluan adierazten den bezala, "udalek beren proposamenak egin eta dagokien lurralde-ordezkaritzara bidali beharko dituzte hilabeteko epean, dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera".

Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten udal guztiei kontsulta egin ondoren, 2024ko uztailaren 18ko Ebazpenean horretarako proposatu eta jasotako tokiko jaiegun guztien zerrenda xedatzen da.

Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko uztailaren 30ean (146. buletina).

2024ko uztailaren 18ko Ebazpena sinatu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidali ondoren, 2024ko uztailaren 19an, alde batetik, Mungiako Udalaren proposamena jaso zen, eta, bestetik, 2024ko irailaren 5ean Ebazpen hori argitaratu ondoren, Gamiz-Fikako Udalaren proposamena jaso zen.

Proposamen horiek aintzat hartuta, beraz, eta ematen zaizkidan legezko ahalmenen arabera, Xedatu dut Mungiako udalerriko 2025eko tokiko jaieguna ekainaren 30ean izango dela, eta Gamiz-Fika udalerriko 2025eko tokiko jaieguna azaroaren 11n (San Martin eguna) izango dela.

Bilbon, 2024ko irailaren 12an.—Bizkaiko Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde-Ordezkarria, Verónica Fernández Fernández